



MIKELA=XOKO



Mikela-xoko, beste emakume-eta gizaseme, askoren antzera, inon etxeak bereak baño lan aundigoa ematen zion.

Itz baten: Mari-xukalde bat zan. Bere lagun aundia zan beste emdretxo bat, Mari-bixar deitzen ziotena ta onen etxean zeukaten auzoko atso guziak «Ateneoa». Esan biharrik ez da «Ateneo» artan batzarrak eiten zirala edozein garaitan; goizean, atzaldean ta gaubean eta-batzar oietan erriko zapi zikin guziak ateratzen zirala aizetara.

Gure Mikela ezkonduba zan, oregatik ezla inor arrituko esaten badegu bere senar gaxuak egunik geienetan etzubela bazkaria agiña billatzen eta au gutxi ez izanik, bazkaltzea nai bazun, bere emazte maitearen billa yuan biar izaten zubela. Baña gauza guziak neurria dute ta egun baten Martín-porrak, orela deitzen zioten gizontxoari-esan zion bere emazte Mikela'ri:

—Mikela: azpertz naiz zure billa ibiltzen egunero ta azkenengo aldiz esaten dizut azpaldi ontan esaten dizutena; bazkaltzera natorrenean ez bazauda etxean, pregoia bota areziko det erri guzian ia inork ekartzen zaitun etxera.

—Ori, ikusiko degu-erantzun zion Mikelak.

Bazkaltzera etorri zanean Martín-porrak urrengo egunean, etzuben etxean billatu emazterik. Orduban yuan zan zuzen-zuzen pregoarian etxera ta esan zion:

—Nal aldituk bost peseta irabazi, pregoi bat esateagatik?

—Bai mutill, ezdit naiko ba!

—Baña, ez dek nola-naiko pregoia gero.

—Begira, Martín, bost peseta gatik esango dit Eretoze Jaunak igandetan esaten duben sermoia baño pregoi luzegoa.

—Ez dek ori, ez.

—Ze arrayo dek ba!

—Emaztea galdu zaidak eta inork billatu etedun pregoia botatzea nai dit.

—Ori aldekguzia! Zer esan biar dit?

—Ara emen idatzita:

«Gaure goizean galdu da atso kankallu, beltz eta itxusi bat, bere izenez Mikela-xoko deitzen diotena. Inork billatu badu eraman dezala Martín porru'ren etxera ta ordainduko zaio bere baliyua: IRU SOS Sari au gutxigi iduritzen bazaio billatu dubenari. berakin gelditu dedilla tan kito».

—Ondo zio, nun esatea nai dek pregoi au?

—Mari-bixar bizi dan etxe aurrean, an egongo dalako nere Mikela.

Eta beste geiago gate yuan zan pregoaria esan zioten etxe aurrera ta asi zan: tran... traaan... tran... tran...

«Gaur goizean galdu da atso kankallu. beltz eta itxusi bat. bere izenez Mikela xoko deitzen diotena.

Inork billatu badu eraman dezala Martín porru ren etxera ta ordainduko zaio bere baliyua: IRU..

etzuben bukatu. Zergatik? Mikelak pregoia entzun zubenian, albuaz zeukan lore-ontzia burura bota ziolako esanaz:

—To, zerri zikiña, eraman zak Porruren etxera ori!!!

TXORI TXIKI

